

- Entzutekuak: Lorea de Castrori elkarrizketa
- Kultura: Jaien aurreko giroa berotzeko lipdub-a grabatuko da bihar

soraluzeko
hamabostekaria **247.** alea
2011ko uztailaren 1ean

👑 pil-pilean



Diru gutxiago, ilusio gehiago

EPOCA-GORO

SUKALDE ETA BAINUGELA ESTUDIOA

San Juan kalea 5. EIBAR • 943 700 216
www.epocasukaldeak.com



SUKALDEAK • BAINUGELAK • PROIEKTUAK • ERREFORMAK • DISEINUA



HERRIKO JAIXETAN SEGI DEIGUN BIDIA JORRATZEN!

22an, 20:00etan
Kalera kalera txupinazoa,
eta txosna irekiera.

23an, 20:00etan
elkartasun kalejira
Izarrako joaldunekin.

24an
Mugitu gherrixa kontzertua.
(Bokata & Music).

26an, 14:30ean
Amnisiaren aldeko
bazkarixa..



AMNISTIA TA ASKATASUNA LORTU ARTE!

Soraluzeko Amnisiaren Aldeko Mugimendua



EGUZKIÑE ALDAZABAL



GORKA PRIETO

2016 ETA 2371

Apa Gorka, Hasi al dozu udia bihar dan moduan? Eguzkixa zeruan eta txapela buruan?

Badirudi matematikaz berba egittia nahi dotela oin-guan, baina ez, klase horrek aspaldixan ahaztuta dauzkat.

2016: Donostiak 2016ko Europako kulturen hiriburua izatia lortu dau. Zorionak, zela ez, donostiar danei, (Gorka, zuri be bai?) eta proiektu horretan lanian ibili diran dane-ri. Gauza ona dala pentsatzen dot, hirixan-dako, eta batez be hiritarrentzako. Baina, ezin dot burutik kendu proiektuan gastatu dan "olatu energia" horren prezixua zein ete dan... nik neuk, Donostian bizitta, bada-akit kultura programa zabala daukala: egunero dago kontzerturen bat, antzezla-nen bat... baina kultura falta pentsatzen jata udal liburutegixak daukan ordutegi mugatua, domeketan itxitta, jaiegunetan itxitta... ezin konparatu leike hau Europako beste hiri batzuekin... Eta aldi berian, ezin dot burutik kendu, portal azpizan trenbidera begira lo egitten dabezenak kulturaz gose baino, bokadilo gosez bizi dirala. Ezin dot burutik kendu, goizeroko eszena, udaltzainek kasik osti-koka euren "logela" inprobisatutik ateraz-zen dittuenekua.

2371: Gorka, ba al dakizu zein izan dan INEn arabera lelengo urteko Euskadiko batazbesteko soldatia? 2371euro! Bataz-bestekua hori bada, pentsatu batzuk zen-bateko soldatia dauken, ezer kobratu barik daren langabetuen aldian! Hamen pastela partitzen dabizenak ez dabe geometriaz askorik ikasi... Izan deixela 2016ko urtia, 2000 euruen urtia, pastela ondo elkarbanatuta, elkarbizitzan inok goserik izan ez dei-xan... kultura gosez bizitzia tristia da, baina gosez bi-zitzia oindiok tristiagua... Eskumuiñak Gorka!

“

“Kultura falta pentsatzen jata udal liburutegixak daukan ordutegixa”

Eguzkiñe Aldazabal

“Herritarrok pagatu biharko dogu Donostia 2016xan Espainiako ordezkari izatia”

Gorka Prieto

”

Ieupala Eguzkiñe, aspaldiko! Itxura danez zeu be zoriondu egin biharko zai-ttut orduan, ezta? Behintzat zergak ordainduko dittuzu eta bere burua hain elegantetzat daukan Donostian. Nahiko leuke hala eta guztiz Donosti-ak, nahiz eta hainbeste zubi ponpoxo izan, bi

aldetarako zirkulaziñua, kotxiendako aparkamentuak eta semaforua (lehen), itturrixa eta era berian oin peatonalta-suna daukan zubixa eukitzia, alajaina! Horrekin, Europar hirittartasuna ez, herrittartasun mundiala Plaentxiak, dedio!!! Dana dala, 2016ko Donostiako Europar hirittartasun horrek be badauzka bere detaile kuriosuak. Garbi-xena honakua: prezixuek bere horretan aguantatzia kostatuko jakula, eta azkenian herritarrok pagatu biharko dogula gure poltsikotik Donostia 2016-xan Espainian ordezkari izatia Euro-

pan (bai, Espainian ordezkari, hamaika ikusteko jaixotakuak gara...). Baina bueno, txapela buruan eta ibili munduan. Behintzat kanpotik etortzen diraneri geure kultura erakustia izango dogu. Nahiz eta igual gehixegi gustatu ez; baitakizu Euskal Herrixan ja ja eta ji ji asko, baina jo jo gutxi. Gaurkotasunera bueltatuz, Santa Ana jai usaina hartzen hasitta najaon aspaldixan eta bertan elkarikuski ezkerro bakailao zatitxo bat eskeiniko dotsute-lakuan (espero dogu aurten ya bakailao txapelketan tongorik ez izatea...), agur

bero bat Eguz! Aaaahh, eta bai Donostian, baita Plaentxia eta Euskal Herriko leku askotan, ia Pirritx eta Porrotxen 'Irrien Lagun'-en doinura dantzatzerik daukagun: '...Irri egin dezagun, etor zaitez gurekin, BILDU gure festara. Elkartasuna da, etorkizunaren azebeze, gure indarrak batuz eta irri egiten ikasiz...'

Goguan hartzeko

**Egia da latz eta garratz
Gotzon Garateren atsotitzak**



GUTUNAK

**Lapurrak
gaztetxetik
kanpora!**

Nazkatuta gaude, azken hilabeteetan lapurreta ugari jasan ditugu gaztetxean. Azkenena, duela bi aste (dirua eta gauza baliotsuak eramanez). Gainera, lapurtzera sartu diren azken honetan beheko pisuko leihoa eta barruko bi ate hautsi dizkigute.

Ez dugu ulertzen nola lapur daitekeen hemen, gaztetxea herriko gazteek autogestionatutako leku bat izanik. Gure esfortzu eta izerdiz hilabeteetan eraikitakoa norbaiten berekoitasunak suntsitzea ez da justua. Lapurtu lapurrei!

Soraluzeko gazte asanblada.



OHARRA:

Datorren alea oporren aurreko azkena izango da eta Santiago-Santa jaietako argazkiekin osatuko dugu; zorion agurrei eta eskeleki dagozkien tarteak bakarrik mantenduko dira.

piL-piLean

Argitaratzailea: Pil-pilean Kultura Elkarte. Errabal kalea 15- 1., PK 27 – 20590 Soraluze, Gipuzkoa **Telefonoa:** 943 75 13 04 **e-maila:** aldizkaria@pilpilean.com **Erredakzioa:** Leire Iturbe eta Miren Narbaiza **Erredakzio batzordea:** A. Unamuno, E. Unamuno eta A. Madrid, L. Iturbe eta M. Narbaiza **Publizitatea:** Ane Larreategi **Logotipoa:** Pablo Galarraga eta Silvio Vaz **Diseinua:** Silvio Vaz **Maketazioa:** Iñigo Uribebebarria **Inprimategia:** Gertu Koop. **Banaketa:** Pil-pilean Ekoizpena, 2.000 ale **I.Z.K.a:** G20696563 **Lege-gordailua:** SS-537-2.000

Pil-pilean Kultura Elkarteak ez du bere gain hartzen aldizkari-
esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Aldizkari honek
erakunde hauen
dirulaguntza
jasotzen du euskara
bultzatzeko.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Saiburuordetza



SORALUZeko
UDALA



GIPUZKOAKO FORU
ALDUNDIA

bittartetik



Joseba Exposito
Harrotasunez

Noiz bueltatu bihar zara Joseba? Jaixetarako ama... Gabonetatik pentsamendu igualari bueltaka... Jaixak beti izan dira helburu, eta oin kanpua bizi naizela, gehixago. Hainbat oroitzapen gorde ta nere buruan, oin akordatu zergo, barretxo bat ateratzen jata herriminakin lotuta. El balance!, zezenak apurtutako fraka barrixak, futbito eta pelota txapelketak, gauerdiko dantzaldixak, erre kara osteratxua uran sakoneria zein dan apustuak egitteko, ...goizko 5etan eta zerbezia eskuan..., barriak! Beti dago zer kontatu ezta? Norberak jaixetan pasatako anekdotan bat kontatzen hasi ezker, Pil-Pilean bat baino gehixago beteko genduke! Herrixan sena erakusten dogu festa egunetan, gehixago edo gutxiago parte hartzen, kultura oso ezberdinetan bizi garandako are espezialagua egitten. Eta zirrara hori, harrotasun hori, jendiak, herritarrok transmititzen dogu, egutegixan beti gorritz markatuta daren egun horrek datorren urtera arte ahaztezin bihurtuz. Santiago - Santa Ana zorionsuak Plaentxi!!!

((ENTZUTEKUAK))

Lorea de Castro, Kultura eta Berdintasun sailtako batzordeburua

Lorea de Castro Kultura eta Berdintasun sailtako batzordeburua da ekainaren 29a geroztik. 26 urteko gazteak ilusio eta emozioz jaso du kargu berria, Santiago - Santa Ana festen atarian gainera.

Zein izango da zure betebihar nagusixa?

Batetik gainontzeko talde politikuekin eta herritarrekin batera herriko kultura ahal doten eta onduen garatzen eta sustatzen ahaleginduko naiz eta bestetik, herrittarrak egitten dituen kultur ekimeneri bultzadia emotia be bada nere lana.

Soraluzen kultura osasuntsu dago?

Herrixan dittugun talde eta eragiliak urte osuan dare martxan eta hori txalotzekua da. Ekitaldi asko herrittarrak herrixandako antolatutakuak dira, herriko kultur gintza aktibo dagan seinale.

Zela sustatu leikez kultur ekitaldixak krisi sasoiotan?

Irudimena erabiliz eta gogoz ekinda. Dirua ekitaldixak antolatzeko garrantzitsua bada be, ilusiñoz eta gogoz lanerako prest dagan taldetxo bat egonda, kulturak aurrera egingo dau. Soraluzen zorionez jende asko dago lanerako gogoz!

Aurtengo jaixak zela biziko dittuzu?

Galtzagorrixa be banaiz eta urteroko kalejiran parte hartuko dot txarangiakin. Zinegotzi izatiak nere bizipenetan eragina izango dabela bada-



kit. Jaixak ondo etartzeko arduria izatiaz gainera, prestaketa lanetan burubelarri murgildu gara eta murgilduko gara. Aurtengo jaixak intentsuki biziko dittut, gau eta egun kalia, jaixak dauken haundittasunaz ohartzen.

Antolakuntzan egon dan parte hartzia aittatzekua da, ezta?

Bai, aurtengo aurrekontua 55.000 eurokoa izan da, iazkoa baino nabarmen txikixagua. Antolakuntza lanetan, ostera, inoiz baino jende gehixagok jardun dau, eta horren emaitza izan da lortutako ekitaldi zerrrendia. Zoriontzeko moduko lana egin da!

Jaixak herrittik herrixandako, zer da zuretzat?

Neretzat jaixak partehartzailiak izan bihar dirala oihukatzen dau esaldi horrek. Jai herrikoiak, lan danak eta poztasuna herrittarren artian banatzen diran jaixak. Herrittarrak ikusle soilak ez izatia, partehartzailiak be bihurtzia.

“Aurten gau eta egun egongo naiz jaixetan”

SAN ANDRES
ITURGINTZA

Iturgintza, gasa, eta berogailuak sukaldeak eta bainuak

Errebal kalea 2 behea T. 943 75 16 46

HNOS. BENITO ANAIK

Etxeko eta Sukaldeko Altzariak
Eskatu presupuestoa konpromisorik gabe

T. eta F. 943 75 20 47
Santa Ana 26, 20590 SORALUZE-PLACENCIA (Gipuzkoa)

Udalekuetan ibili dira ume eta gazteak

Herriko 106 haur eta gaztek Hurduri baina gogotsu hasi dituzte herrian antolatutako udaleku ezberdinen txandak. Kukumixo Aisialdi Taldeak, Arrasateko Txatxilipurdi eta Bergarako Jardun aisialdirako taldeekin elkarlanean Kosta ala kosta 14-16 urte bitarteko gaztetxoendako udalekuak antolatu dituzte. Udaleku ibiltaria izan da aipatutakoa eta Otaza ur-

tegitik hasi, Soralezetik pasatu eta Zarautzen bukatu da udalekua. Kukumixok 4 urtetik hasi eta 10 urte bitarteko umeentzat udaleku irekiak ere antolatu ditu. Haurrak adinka banatu dituzte eta adin tarte bakoitzerako egitarau berezia prestatu dute. Talde denetan eskulanak, jokoak eta irteerak ez dira falta izan.

Ingelesez ikasitakoa lantzeko

Atxolin Guraso Elkartek antolatu dituen ingelesezko udalekuetan 16 umek eman dute izena. Adinaren eta ezagutza mailaren arabera bi taldetan banatu dituzte umeak eta egunean ingeleseko ordubate jasotzeaz gain ekimen ugari ere egin dituzte: Bergarako igerilekura joan dira, Ezozin "altxorraren bila" jokua egin dute eta Osintxuko bidegorrira ere joan dira esate baterako, den-dena ingelesez eginez.



Kosta ala kosta udalekuetan parte hartu duten herritarrak.

Kanpandorreko erlojua konponduta

Kanpandorreko erlojua nahiko nahastuta ibili da azken asteotan baina martitzena geroztik ordua sinkronizatuta du. Luis Gomez abadeak jakinarazi du erlojuaren akatsa sistema berriaren ondorio izan dela, mantenurako errezagoa dena. Konponduta dago kanpandorreko ordularia.

Tapoiak birziklatzeko kaxa berria

Iratxo goxodendan tapoiak birziklatzeko aukera dago, denda kanpoan jarri duten kaxa berrian. Kasu honetan tapoiek in jasotako dirua burmuineko paralisia duen Eskoriatzako gazte batenzat izango da, gurasoak lan gabe geratu dira eta gazteak behar dituen material berriak erosteko (aulkia, komunaren konponketa...) erabiliko da.



Udal zerbitzuetako udako ordutegia

Udal zerbitzuetako eraikinak zabalik mantenduko dira abuztu osoan, jai egun seinatu batzuk izan ezik. Udaltzainek urte osoko ordutegi berbara mantenduko dute abuztuan ere, 07:00etatik 21:00-ra astegunetan eta asteburuan 08:30etatik 20:30ak arte. Santiago – Santa Ana jaietan ere normaltasunez lanean jardungo dutela aipatu dute. Udaletxea berriz Santiago – Santa Ana jaietan bi egunez egongo da itxita, hilaren 25ean eta 26an. Abuztuan ere Andra Mari Eguneko festetan itxiko da, abuztuaren 15ean, 16an eta 17an. Gainontzeko egunetan ohiko ordutegia izango du, 08:30etik 14:30era bitartean.

Eneritz Burunzaren pintxoak saritua

Elgoibarko Gabi jabetxeko langilea da Eneritz Burunza soralezetarra eta Elgoibarko Udalak antolatutako III. Pintxo lehiaketan epaimahaiaren eta publikoaren lehen saria eskuratu du berak eta Veronica Rodriguez elgoibartarrak prestatutako Mozzarella gazta, bexamela eta piper gorrien marmeladarekin egindako kroketa itxurako pintxoak.



Iturria: Barren

TXURRUKA
JATETXEA

www.txurruka.com
943 75 15 81

MENDIZABAL
okindegia

Kalebarren 10
T. 943 75 20 91
Baltegieta 6
T. 943 75 13 99
SORALUZE

Jaietako kartel lehiaketako saridunak

Jaietako kartel lehiaketako sari banaketa egin zuten aurreko barixakuan kiroldegiko erakusketa aretoan. Lehiaketan aurkeztutako lan guztiak ikusgai egongo dira gaur iluntzeko 20:30ak arte. Jose Manuel Esnal elgoibartarrak bigarren jarraian irabazi du Santiago-Santa Ana jaietako kartel lehiaketa. Elgoibartarrak 300 euroko saria jaso zuen.

Ume eta gazteen kategorian Oier Esnola, June Eguren, Sergio Montes, Garazi Jauntsarats, Bili Yanguas, Manex Domingez, Markel Fernandez eta Andoni Gonzalez izan dira sarituak.



DBHko institutua saritu dute

“Eskola Agenda 21” programaren barruan egindako lanagatik Soraluze Institutuak “eskola jasagarria” ziurtagiria eskuratu berri du. Ziurtagiri honen helburua Eskola Agenda 21 programa modu bikainean garatzen duten ikastetxeen lana, prozedurak eta esperientzia saritzea da. Agiri hau hiru ikasturterako ziurtagiria da eta berarekin batera, 1000 euroko dirulaguntza eta eskola jasagarriaren bandera bat jasoko dute.



Udal batzordeak osatu dira eta batzordeburuak izendatu dituzte

Aurreko eguaztenean ez ohiko Udaltzatza egin zuten herriko ordezkari politiko berriek. Azken saioaren akta aho batez onartu eta gero, Udaltzatza osoko bilkurak hileko lehenengo eguaztenean egiten jarraitzeko proposatu zuen Hiart Arluziaga alkateak. Bilduk eta PSE-EEK alde bozkatu zuten, EAJ abstentitu egin zen. Jeltzaleek bi hilean behin batzeko eskaera egin zuten, horrela “saio bakoitzaren 600 euroko kostua aurreztuko litzateke,

eta bestetik, behar izanez gero, ez ohiko saioa deitzeko arazorik ez genuke eukiko” azaldu zuen Iker Aldazabalek.

Lehen alkateordea Roke Akizu izango da, bigarren alkateordea Lorea de Castro eta hirugarrena Mikel Argarate.

Aldeko zazpi botu eta EAJren abstentzioarekin, horrela antolatutako batzorde informatzaile iraunkorrak (sail bakoitzean lehenengo agertzen dena da batzordeburua):

Kontu, ekonomia eta hazienda: Hiart Arluziaga, Iker Aldazabal eta Patricia Borinaga.

Enplegu eta pertsonala: Hiart Arluziaga, Iker Aldazabal eta Soledad del Bosque

Hirigintza, lan eta zerbitzuak: Roke Akizu, Iker Aldazabal eta Soledad del Bosque.

Hezkuntza: Hiart Arluziaga, Nagore Zabala eta Patricia Borinaga.

Kirola eta kiroldegia: Mikel Argarate, Ramon Gallastegi eta Soledad del Bosque.

Euskara: Mikel Santiago, Nagore Zabala eta Patricia Borinaga.

Kultura: Lorea de Castro, Nagore Zabala eta Patricia Borinaga.

Lurralde antolaketa eta landa garapena: Roke Akizu, Ramon Gallastegi eta Soledad del Bosque.

Osasun, gizarte ongizatea eta inmigrazioa: Mikel Santiago, Jose Rafael Varela eta Soledad del Bosque.

Parekidetasuna: Lorea de Castro, Nagore Zabala eta Patricia Borinaga.

Gazteria: Mikel Argarate, Iker Aldazabal eta Patricia Borinaga.



Udaltzatzaerako informazio osatua:



ARRANO
tabernia

etorri eta gozatu
giro euskalduna eta sanua

etxera

JUAN MARI
ARRAINDEGIA

943 75 24 40
MERKATU PLAZA

ESKERRIK ASKO PLAZENTZIATARRAI
GUGAN IZANDAKO KONFIANTZAGATIKI

SANTIAGO-SANTA ANA JAIKAK

Diru gutxiago, ilusio gehiago

Uztaila bere azken egunetara heltzear dagoela, hasi gara jaien usaina hartzen. Badihardute herriko hainbat eragilek egitarau txukun bat osatzeko lanean eta zer edo zer argi geratu bada, aurtengo jaiak oso partehartzaileak izango direla da.

Aurrekontuak jeitsiera nabarmena eduki du aurtentzen; 55.000 euro bideratu ditu Udalak jaietararako, iaz baino 13.000 euro gutxiago. Horrek irudimena martxan ipini du, herriko jai batzordean eta Galtzagorrien artean, eta herritarrek herritarrendako egindako jaiak antolatzeak indarra hartu du. Emaitza: herriko kultura asko batuko dituen “jaialdi multikulturala”, herriko gazteen musika taldeen emanaldia “Mugitu Gherrixa” jaialdian eta “Mexiko” musika ikuskizuna, abesbatzako eta beste hainbat musikariek eskeiniko dutena.

Mikel Valero: “Hasieratik helburua argazkilaritzarako afizina sustatzia zan”

Herritarrek parte hartzen duten ekimenak badaude lehendik ere jaietan. Danborrada da haundietako bat, bakailu lehiaketak ere arrakastatua handia izaten du (gertatzen eta jaten), Kalebarrengo herri bazkariak azken urteetan ere indarra hartu du, karta eta toka txapelketak... Aurtentzen azeituna hezurren jaurtiketa batuko zaie lehiaketei. Kirolean ere herritarrek izaten dira jaun eta jabe, futbito eta pilota txapelketetan. Aurtentzen gainera, penalti txapelketa antolatu da zaletuendako.

“Klik!” batez piztuko da aurtengo txupina

Kontrargik 25 urte beteko ditu aurtengo urrian. Mende laurdena ospatzen hasteko, jaietako txupina argazki kolektiboko kideak botatzea erabaki du jai batzordeak. Taldeko Mikel Valerok pozik hartu du albistea: “Plañtziatar batendako ohoria da txupina botatzia eta ilusino haundia daukagu. Oin dala 25 urte talde berri bat ginan, gu be askoz gaztiaguak, eta gure helburua argazkilaritzarako afizina zabaldu eta sustatzia izan da”.

1986ko urrian sortu zuten Kontrargi, ordutik gauza asko aldatu dira. Besteak beste, teknologia bera asko aurreratu da: “Oin formatu digitalak lanerako funtzionamendua aldatu egin dau. Diferentia da, beste aukera batzuk ekartzen dittu. Baina ia gero eta gitxiago errebelatzen dogu eskuz”.

Ibilbide luze honetan erretratu mordoa atera dituzte. Baten bat bereziki gogoan daukan galdetuta, hasieretako bat etorri zaio burura. Juan Manuel Berruetak argazki rally baten egindakoa da: “Gaixa, “Elizako irteera” zan. Lehiaketan parte hartu genuen argazkilari denak kamara eskuan agertzen gara, instantaneo onenaren bila. Argazki hori aukeratuko nuke nik”.

Urteurrenaren harira 17 urtetik beherakoendako argazki lehiaketa antolatu dute Santiago-Santa Ana jaietan. Gaia “Jaiak” da eta hori ondoen islatzen duten hiru argazkiek herriko denda baten gastatzeko bale bat jasoko dute.

Aurrerago partehartzaileen argazkien anplazioa egin eta guztien lanekin urrian erakusketa bat antolatzea da asmoa.



“Jai Multikulturala” nazio ezberdinetako herritarren dantzak, musika eta gastronomia

Poltsikoan diru gutxiago edukitzeak ez dauka zezan txarra izan. Burua astintzeko aitzakia paregabea ere izan liteke. Jai batzordea horretan ahalegindu da: “konturatu ginen kanpotik ikuskizun gutxiago ekarri ahal izango zela eta herrian bertan sortu edo gertatu beharko genituzkeela ikuskizunik gehienak” azaldu digu Mikel Leunda teknikariak. Ekitaldi honekin gurekin batera bizi diren komunitatek ezagutzera ematea eta komunitate horretako pertsonak jaietan beste edozein herritarrek moduan parte hartu dezaten lortzea, jai euren sentitzea lortu nahi dute.

Uste baino herri gehiago bizi gara Soraluzean: Marokoko arabiarrek eta amazigak, ekuadortarrak, argeliarrak, senegaldarrak, alemanak, katalanak, kubatarrak... Bakoitza bere ekarpena egingo dio jaiari, eta eurekin batera bertako jendeak jardungo du kantuan zein dantzan. Euskal Herriko eta Ekuadorreko dantzak ikusi ahal izango dira, Marokoko musika, Ekuadorreko “Mochin de Yuca” eta “Maduro con queso”, Maroko eta Algeriako pastela, tea eta Euskal Herriko txistorra dastatzeko aukera ere izango da. Amaieran Kubako talde batek kontzertua eskainiko du.

Herrixan bizi diran beste komunitatek jaixa euren sentitzia lortu nahi da

Herriko mariatxiak eta boleroak

Aurtengo egitarautik desagertu den ekitaldietako bat mariatxiak da. Baina herrian ez da artistarik falta eta abesbatzako kidez eta herriko norbanakoz osatutako talde batek bere burua aurkeztu du “mexikanadak” eskaintzeko. Mexikoko kantuez gain boleroak eskainiko dituzte, “El rey”, “Malagueña” edo “Cielito lindo” piezak beste batzuen artean. Uztailaren 23an izango da emanaldia Plaza Zaharrean.

Herriko musikariak Mugittu Gherrixa jaialdian!

Galtzagorriek ahalegin berezia egin dute jaiak parte hartzaileak izan daitezzen. Horregatik, herriko musikariei dei berezia egin diete, euren instrumentuak hartu eta oholtza gainera igo eta “Mugitu Gherrixa” jaialdian parte hartzeko.

Ekimena RKzulo zenaren arrastotik dator. Han herriko musikariek beste talde ezagun batzuen bertsioak eskaintzen zituzten eta izugarritzko arrakasta lortu zuten herrian. Oraingo honetan partehartzaileak herriko musika taldeak dira eta euren erreperatorioko kantuek joko dituzte.

Herrian zehar hiru eremu ezarri dituzte kontzertuak eskaintzeko, Plaza Zaharra, Gaztetxea eta txosnagunea. Hauek dira orain artean izena eman duten taldeak:

Mugitu

- Junzaitxetxera
- Game Over
- Klubo Oxidado
- DJ Asi
- DJ Sakarina



Gherrixa

- Sexperience
- Desprezio
- Horrek
- DJ Uri



ZER IRIZTEN DOTSAZU?

Aurtengo jaietako egitaraua prestatzen jende mordo mugitu da. Ahalegin berezia egin da jai parte hartzaileak antolatzeko. Zer da herritarrei jaietatik gehien gustatzen zaiena?

Zer da jaixetan gustoren egitten dozuna?

IKER BENITO



Txosnetako girua, zezenak eta kontzertuak gustatzen jataz gehixen. Iazko DJ gaba be ondo egon zan. Aurten herrixandako pentsatutako jaixak izango dira eta hori oso inportantia da.

MAITE DOMINGUEZ



Neri gabeko girua gustatzen jata, gaupasa egunian be oso ondo pasatzen dot. Orokorrian ondo egoten dira Santiago-Santa Ana jaixak eta aurten jendia asko mobidu da jai partehartzailiak antolatzeko.

SUSANA LARREATEGI



Denbora asko daroiat urten barik, baina asko aldatu dira, lehen danborradarik be ez zan egoten! Partehartziana primeran dago, hola izan bihar da gainera, iritzixak batu eta ia zer dan jendian gustokuena.

XUBAN CATALAN



Gehixen Marrazen jaietsieria gustatzen jata eta baitta gabeko girua be. Entzun dot 40 lagun ibili dirala jaixak prestatzen, lehen ez zan horrenbeste jende mobitzen eta bazan horretarako ordua.

Eman zure iritzia sarean







MAPFRE



SORALUZE ZERBITZUAK S.L.

Juan Luis Ibarzabal - Ainhoa Ibarzabal

Gabolatz, 5-B Behea
20.590 Soraluze (Gipuzkoa)
e-mail: jibarza@infonagocia.com

Tlf: 943 75 16 58 - 943 75 30 12
Mugikorra: 649 49 79 59 - 649 75 90 78
FAX: 943 75 16 10

Ion Murgizu Pinturak

MARGOKETA OROKORREAN

Empapelatuak
Estukoak
Fatxadak
Eskilarak eta patioak
Pintura industrialak



T. 943 75 1324 M. 652 777 030
Ezoziko etorbidea 24, 2 Behea

Javier Alonso Zelaeta
MEDIKU ESTOMATOLOGOA
K.Z. 20.000.434

HORTZ KLINIKA

Errabal 1 - Barrenekoa 2 T. 943 75 16 13





Txoko Kafetegia

Kafe ederra hartzeko
txokorik onena!

Kalebarren 22, behea,
Soraluze, Tel. 943 75 17 89

Irure auzoko ospakizuna

Abuztuko lehenengo domekan ospatzen da Irure auzoko jaia eta aurten abuztuaren 7an izango da. Urteroko ohiturari helduz, eguerdiko 12:30ean meza egingo da eta ondoren luntxa eskainiko dute bertaratzen diren guztientzat.

Hiru eguneko jaia Andra Marietan

Abuztuaren 15ean Erandioko musika bandak estreinatuko ditu jaiak. Herriko txikienek puzgarriak izango dituzte eta dantza solte txapelketak Plaza Zaharra beteko du. Iluntze partean Erlaxi taldearen erromeria egongo da. Hilaren 16an ohikoa den prozesioa egingo da San Roke basilizara trikitilariekin. Tortila lehiaketa egingo da eguerdian eta Erlaxi taldea arituko da iluntze partean. Txokolatada eta Duo Plaentxiren emanaldiak itxiko dute eguna. San Roke txiki egunean zezenik ez da faltako, txarangak alaituta.

Usoa Zumeta Oreka Art galerian

Usoa Zumetak "Lan grafikoa" margo erakusketa zabalduko du gaur eta 31ra arte ikusgai egongo da Oreka Art galerian. Usurbilgo artista honek editatutako lanen artean Luis Zumetaren, Beliaetxeren, Jose Luis Goenagaren, Basterretxearen, Blamiren eta Kolobika Jauregi artista handien lanak daude. Erakusketa honekin galeriako ateak itxiko dituzte irailera bitartean.



300 lagun espero dira Lipdub-aren grabazioan

Herriko jai giroa berotze alde-
ra, "Mugittu Gherrixa" lipdubagrabatukodabihareguerdiko 12:30etik aurrera herriko kaleetan zehar. Galtzagorrixek antolatutako ekimena izango da eta herriko haur, gazte, heldu, jubilatu, etxe-koandre, etxekogizon, langile, langabetu, elkarte eta eragile denak gonbidatu nahi dituzte bertan parte hartzera. Azken egunotan lipdubean parte hartzeko gonbida-

penak banatu dituzte herritarren artean eta 300 bat lagun batzea espero dute. 4,55 minutu irauten duen Itziarren Semeak taldearen "Mugitu gerria" abestiarekin herrian zehar honako ibilbidea egingo du lipdubak: Frontoian hasiko da, Plaza Zaharrera jaitsi, handik Plaza Barrira egin eta Zubi Nagusian amaituko da. Goizean zehar, behar beste entsegu egingo dituztela aurreratu dute.

Ipuin lehiaketako irabazleak saritu dituzte

Soraluzeko Udaleko Euskara Batzordeak antolatzen duen ipuin lehiaketaren XXVI. edi-

zioko sariak joan den ekainaren 23an banatu ziren. Hemen maila baikotzeko irabazleak:

"A" MAILA: Lehen Hezkuntzako 3 eta 4. kurtsoak
Garazi Jauntsarats, "Umea eta zuhaitza".

"B" MAILA: Lehen Hezkuntzako 5 eta 6. kurtsoak
Koldo Etxaniz "Nire amona piroteknikoa da"

"D" MAILA: D.B.H.ko 1 eta 2. kurtsoak
Ion Ordax, "Aitonaren ipuinak"

Irabazle danen izenak 

**Parte hartze handia San Andresen**

San Andres auzoko bizilagunak ospakizunetan buru belarri murgilduta jardun dute. Aurreko zapatuko herri afariko mahaia bueltan 80 lagun bildu ziren eta San Andresko harria txapelketak ere ikusle asko batu zituen. Pelota partidak, bertsolariak, emakumeen bola sariak, eta erromeriak dira besteak beste auzoko festak jantzi dituzten ekitaldiak.



GILA TABERNA

GOIZEKO 6:30ETATIK AURRERA ZABALIK

**GOSARIAK
ETA PINTXO
GOXO GOXUAK**

ERRABAL KALEA 15 T. 943 75 18 34



KM
Desing

Disenua eta Sormena

Poligono Amillaga, nº 5

Tlf.: 943 76 99 85

20570 BERGARA (Gipuzkoa)

Fax.: 943 76 05 17

Altzairuen fabrikazioa:

- Bainugelak
- Sukaldeak
- Horma-armairuak
- Barruko altzairuak

Amaia Argarate eta Amaia Ariznabarreta txapeldun



Aurreko zapatuan Torturaren Aurkako Emakumeen VI. Pala Txapelketako finalak jokatu ziren. Lehenengoetabigarren postuetan, Amaia Argarate - Amaia Ariznabarreta eta Rosa Etxeberria - Alana Berraondo geratu ziren, 30 eta 20ko emaitzarekin. Amaia Ariznabarreta

“Arritxa”k bost ediziotan hartu du parte eta lautan lehenengo postua eskuratu du. Hirugarren eta laugarren postuetan aldiz, Lidia Fernandez eta Arrate Gisasolak 30 eta 15 irabazi zieten Ainhoa Eizagirre eta Ainhoa Zubizarretari. Finalak jokatu ostean, sariak banatu eta San Andres auzoko jaietako herri afarian afaldu zuten denek.



LXIV Soraluze Txirrindularitza Saria abuztuaren 6an

Egun horretan jokatuko dute jubenil eta 2. urteko kadete mailako txirrindulari gazteek Soraluzeko LXIV. Txirrindulari Saria. Soraluze Kirol Elkarteak antolatzen duen proba goizeko 10:30ean hasiko da Estaziño kalean. Hortik Eskoriatza, Mendarro, Angiozar, Asensio Goia eta Bergara igaroko dituzte. Lasterketa Soraluzeko San Andres auzoan amaituko da, eguerdiko 12:30ak inguruan.

Herriko bi ordezkari

Aipatutako frogan hirurogeita hamartxirrindulari hartukodute parte eta herritik Xabier Gallastegi eta Andoni Rico gazteak arituko dira pedalen gainean. Biek gogotsu hartuko dute lasterketa eta maila ona erakusteko asmoarekin dautte. Seguruenik Mikel Aristik ere lehiatuko duela aipatu du frogako antolatzaileak, Juan Mari Oregik. Txirrindulari proba dela eta herrian ipiniko diren trafikoko seinaleak errespetatzeko deia ere egin dute antolatzaileek.

Kiroldegiak ordutegi berezia izango du

Udako oporrekin batera herriko kiroldegiak ordutegiz aldatuko du zenbait egunetan eta gainontzekoetan itxita egongo da. Santiago - Santa Ana jaietan hasiko da ordutegi aldaketa. Uztailaren 23an eta 24an goizez bakarrik egongo da zabalik, 9:00etatik 13:00era.

Uztailaren 25ean eta 26an kiroldegiko ateak itxita egongo dira. Abuztuaren 1etik 5era bitartean betiko ordutegia mantenduko dute, 08:30etik 21:30era. Hilaren 6tik 29ra itxita egongo da eta ikastaroak irailaren 12an hasiko dira.

EMAITZAK

PELOTA

Mtz de Irujo – Laskurain	22
Gonzalez – Zubieta	8
Titin III – Merino	22
Gonzalez – Laskurain	15
Olaizola I – Beloki	21
Apezetxea – Laskurain	22
Arretxea II – Patxi Ruiz	9
Apezetxea – Laskurain	13
Atxotegi – Jauregi	22
Muguruza – Rezusta	20

FUTBOLA

Futbito txapelketa 2011

Super Torpedos – Bar Intxixu	9-6
Lokalimotxo – Kaztakoak	0-3
Real Coholicos – Arane	0-3
Joga Bonito – Hola dok ala	3-2
Korta Team – Diego Valor	6-6
Fronton Team – Artifices	2-5
Artifices – Arane	5-1
Eusko Label – Hola dok ala	5-5
(Penaltietan Hola dok ala irabazle)	
Joga Bonito – Kaztakoak	7-6
Super Torpedos – Fronton Team	2-7

AGENDA

PELOTA

Astelehena 17, 17:00etan Zarautzen

Aritz Lasa – Peñagarikano
Idoate – Laskurain

FUTBOLA

Futbito txapelketako finalerdiak Uztailak 15 barixakua:

19:00 Joga Bonito – Fronton Team
20:00 Hola dok ala – Artifices

FUTBITO TXAPELKETAKO FINALA

Uztailaren 22an jokatuko da, 20:00etan kiroldegian.

OHARRA

2011-2012 kurtsorako multikirolerako monitorea behar dira.

Telefonoa: 943 75 24 66 (María) edo kiroldegian galdetu.

ZORION AGURRAK



Iraitz Plata

Uztailan 13an 3 urte!
Zorionak eta ondo pasatu zure egunian! Patxo haundi bat etxekuen partez!



Zorionak Maddi!

Uztailan 16xan 2 urte!
Marrubizko muxu haundi bat danon partez sorgintxo!



Joseba Mendizabal

Uztailan 7xan 14 urte!
Zure eguna giro paregabian pasatu dozulakuan, zorionak familixa danan partez!



Jon Caballero

Uztailan 15ian 7 urte!
Zorionak Jon eta muxu haundi bat familixa guztixan partez, batez be Nagoren partez!



Miren eta Nora Gabilondo

Uztailan 10ian 4 urte eta 14an 6 urte!
Zorionak eta muxu haundi-haundi bat Maren, Elene, eta Noran partez!!!



Paula Arana

Uztailan 23an 11 urte!
Zorionak poxpolintxo, etxeko danon partez!



Mainer Fernandez

Abuztuan 3an 12 urte!
Zorionak politta eta muxu haundi eta besarkada asko aitxitxa eta amaman partez!



**Julen uztailan 20xan 3 urte!
Ane abuztuan 8xan urtebete!**

Zorionak bikote eta mila muxu etxekuen partez!

LEHIAKETA

AURREKO ALEKO ERANTZUNA

► **Zein ageri da argazki honetan?**

► **Saria: Iñarra harategian 30 € gastatzeko bonoa.**



► **Irabazlea: Markel Oregi**

► **Aitor Atxotegi**, herriko pelotari gaztia da aurreko aleko argazkixan agertzen zan soraluzetarra.



Oharra: Lehiaketako irabazlia aukeratzeko zozketia alia etara eta hurrengo barixaku eguerdixan egitten da

deitu **943 75 13 04** edo e-mail bat bidali ezazu **aldizkaria@pilpilean.com**

ARGAZKI ZAHARRA



90. HAMARKADAKO SANTIAGO-SANTA ANA JAIXAK

Ale honetarako Santiago-Santa Ana jaixetako argazki zahar bi ekarri dittugu. Lelengua 1997ko jaixetakua da, urte hartean txupina Aritz Laskurainek bota zeban. Suzirixa piztu eta berehala txanpain olatu batek busti zeban Zubi Nagusixa.

Bigarrena urtebete beranduagoko jaixetakua da. Bertan ikusten dan bihurri kuadrillako lagunak hamar bat urteko mutil koskorak ziran orduan. Euren blusa eta guzti, festarako gogo betez zeren!



*Izan direlako
gara...*



Iragana **gogoratu** dezaten bizi izan zutenek
Iragana **ezagutu** dezaten bizi izan ez zutenek

Bidali **argazki zaharrak** aldizkaria@pilpilean.com helbidera,
Pil-pilean Elkartetik pasa edo Iratxo gozodendan utzi!

Baldin badakizu,
ez ahaztu...
protagonisten izenak,
urtea, lekua eta
konturen batzuk!!

Astebetean itzuliko dizkizugu!



 **PASCUAL CHURRUGA, S.A.**
Hotzian eta beruan
jotako tornilluak

Errekalde 21
20590 SORALUZE

T. 943 75 00 06
T. 943 75 16 00
F. 943 75 24 61

Javier Alberdi

 **EUSKO LABEL**

Baimendutako
harategia
Euskal Okela
Carniceria
autorizada

Errebal kalea, 24 • Tel. 943 75 19 32 • Soraluze



**TXURITXU
KAFETEGIA**

Hau da leku hau leku hau
leku hau, hau da leku hau
leku hau, hau da leku hau
leku hau, hau da leku hau

Bertan da leku hau
leku hau, hau da leku hau
leku hau, hau da leku hau
leku hau, hau da leku hau

25 urte zuzen zerbitzura zuzi gaker.

**ARMENDIA
JATETXEA**



Ezoz Auzoa 11
20590 Soraluze
T. 943 75 10 02

SUKALDARITZA
TRADIZIONALA



**Soraluzeko
Kooperatiba
Elkartea**

100 URTE
1910 - 2010

943 75 13 45

MABE
ILEPAINDEGIA

**ESTETIKA
SOLARIUM**



Errebal kalea 1, behea
Tel.: 943 75 14 89
20590 SORALUZE

Ni baino hobeto daguana, txarrrri galanta argazki lehiaketa



Egoera politak, momentu zoragarriak, parrandak, ondokoaren ajea. Bidali une ahaztezin horiek eta irabazi nekazal-turismo batean astebukaera bat.



Bidali argazkiak:


aldizkaria@pilpilean.com helbidera edo **Pil-pilean Euskara Elkartera** (27. postakutxa), irailaren 30a baino lehen.

Oinarriak



SORALUZECO URTAROEN ARGAZKI LEHIAKETA

Uda



Gaia: Udaberria adierazten duen Soraluzeko edozein argazki: natura, kalea, baserria.

Epea: urriaren 30ean.

Nora bidali: aldizkaria@pilpilean.com

Argazkien argitalpenak: aukeratutako 12 argazkiak 2012ko herriko egutegian argitaratuko dira.

Horrekin batera argazki guztiekin erakusketa antolatuko da kiroldegiko erakusketa aretoan.

